

Askori  
moltsa hantu arau  
bihotza hertzen  
E. BANNIORG.

# HERRIA

Nº 1377

1,20 libera

1977ko urtarrilaren 6koa

**Industriako lantegi kooperatiben aita**

## Jose Maria ARIZMENDIARRIETA hil da

Duela hogoi-ta-hamabost uste, 1941-ean, apez gazte bat, euskalduna, sartu zen bikario gisa Mondragon-Arrasate-ko herrian. Parrokiako apezlan guzian gainetik, apendizgoan hasiak ziren mutiko gazteeri behar zioten ongi bizitzen erakutsi.

Bilakatu da, geroztik, obra ederrenetarik egin duten gizonetan obra baliosena egin duena Euskal-herrian. Izpiritu berria sor-arazi du, gizon-tasunari zor zaion errespetuaz eta langileek lanarentzat duten konfientziaren bidez.

« Don Jose Maria » erraten zioten denek, apezka baitzen, eta denek diote izen hori ez dela galtzekotan, hor baititugu begien bixtan bere ideia eta ametsetarik sor-arazi dituen industria kooperatibak, gure eskualde auzoan.

Markinan sortua zen 1915-ean. Eta Arrasaten hil da 61 urtetan, hazilaren 29-an. Mundua bildu da haren ehorzketetan.

Gure aldeko jende frangok ere ezagutzen zuten. Bi mila jende baino gehiago ibili da hemendik harat, Mondragoiko lantegien bisitatzerat: industrialari, laborari, langile, zindikalist, kaseta-lari, injenier, eta bertze. Etsenplu hori baliatuz, bat baino gehiagori gogoratu zaio, behin eta bietan, izpiritu berri horrek merezi zuela gure aldetarat zabalzea. Orain arte, lantegi guti sortu da holakorik gure eskualdean, bainan ez da sekulan etsatu behar, hortan ere.

### Borrokatik jalgia

Hamabost urte iragan ziren, lehenbiziko industria kooperatiba sor-arazteko, behar izan ziren izpiritua eta gizonak aski preparatzeko, Arrasaten berean.

Espainiako gerla zibila 1939-an gelditua zen. Euskal-herriko jendea bortizki zafratua. Arrasaten bitorios sartu orduko, nausi berriek hil zituzten hogoi-ta-hamabi gizon balio handikoak, eta heietan herriko erretora, Joakin Arin, eta bi bikarioak. Toki menditsu hortan, zortzi mila jende baziren, eta lana xuhur.

Mondragon-Arrasateko apendizgoan eskolatik, Don Jose Mariak egin zuen eskola profesionala, 1943-an. Eta gazteen moldatzea zabalteko, batasun bat muntatu, 1948-an. Oihartua zen zer borroka zen azpitik nausien eta langileen artean, diruaren eta lanaren borroka. Orduan pentsatu zuten behar zirela elkartu biak, dirua ta lana, esku beretan eman bi soka-mutur hoik.

### Partzuergoan... Ulgor

Gauza hori nola egin zitaken hobeki, bere mutiko gazteentatik bost hoberenak hautatu zituen, eta igorri Zaragozarat beren jakintza osatzeko. Etorri zirelarik gibelerat, lantegi kokor bat hasi zuten, « berogiak » gazan kurritzeakoak eginez. Dirua, lan horri lotzeka, berek ekar. Lantegi guziko zer egin eta nola erabili beren artean deliberatu. Eta partzuergo izan zitaketen irabazi ta galduetan. Ikusi zuten joko-bide hori ona zela eta orduan deliberatu zuten handiz egitea, ttiki hoin ongi hasi zutena. ULGOR eman zitoten izena, bost letra, bost gizon gazteen izenen lehen letra elgarrekin josiz. Hori, 1956-ean.

Langileek berek erabaki zituzten beren legeak, lanean zer egin, nola

egin, nori eman lan-tokiak, nola anto-la saria zatikatzea. Berek muntatu zuten beren segurantzta, eri eta kolpatureri eman zitzaizoten laguntza, zahar erretreta eta bertze. Kontuak nahi zituzten garbi. Ilabete guziz geroztik ere, ageriki ezartzen dituzte lantegietako atetan, baktotxaren eta lantegi osoaren irabaziak.

Hekien erabaki nausia izatu da beti: denen buru denak ez dezakela irabazi ttipienak baino hiru aldiz gehiago baizik.

Geroztik molde hortan lantegiak zabaldu dire, berriak sortu, zaharrak erreberritu, eta gisa hortan moldatu. Badire orain holako berrogoi-ta-hamar lantegi, bereziki Gipuzkoa ta Naparroan, baktotxa hiru bat mila langilerekin. Eta lantegi hoikien guzian xapel edo goi-nausi da ULARCO batasuna.

### Elgaren diruak eta ikaskintzak

Beren artean sortu zuten gero diru-ete bat, « Lankide aurrezkia » (Caja laboral), 1959-an, orain baita hor gaindiko banketxe azkarrenetarik bat. Dirukutxa horrek hartzen duen diru-guzia da bakarrik ULARCO horren me-neko diren lantegientzat.

Eskola profesional berria egin zuten gero, lantegi hoikientzat behar diren langile eta buru izanen direnen moldatzeko. Baditu egungo egunean bi mila ikasle eta horren ikaskintza da gaiez arras oraiko teknikeri doana.

Lehenbizikopetarik izatu baitzen P. Larzabal gure adiskidea, duela hamabi urte, 1965-ean, Arrasateko bisi-

tazaile guzietan, eta geroztik zenbait itzuli baititu han eginak besteen gidari, galdetu diogu xehetasun zenbait gure irakurleentzat. Eta lehenik, denak akort ote ziren jende-mota guzietan.

« Lan-molde berri horrek bere etsaiak izan ditu, bai ezkertiar, bai eskuindarren aldetik. Behin, Gipuzkoako gobernadoreak nahi izan zituen kendu lantegi hoik. Bainan jazarkunde izigarria piztu zuten, ta azkenean gobernadorea tokiz aldatu izan behar zuten. Ikusiz zoin ongi zoen lantegi hori, Madrillek nahi izan du munduari erakutsi bere obra balu bezala. Hortakotz barneko ministroa etorri-rik, eman zioten medailla egun batez Koxe Mari apetzari. Ikusi nuen medailla eman zioten egunean, handizki beziti. Trufa ere egin nion, heian frankista bilakatua ote zen. Halako asarre batekin, erantzun zidan: Aintzinetik, medailla ematen, eta gibeletik osti-koa! »

Ezkerriarrek ez zuten on hartzen horren joko-bidea, baitzioten holako moldatu lantegian ez zela gehiago borrokarik dirudunen kontra. Eta beraz hausten zutela dirudun gaixtoeri egin behar zitzaizoten borroka. Emeki haatik ezkerriarrek ere on hartu zuten joko-bide hori, ikusirik Arrasateko langileek bazakiteia behar orduetan kalerat jausten eta borroka egiten.

### Zer gizon-mota zen?

« Koxe Mari zen gizon maha sekail bat, irri pollit batekin, gooparra bere-tzat eta goxoki bainan farmuki go-

gorra bertzentzat. Bazuen bihotzeka eritasun bat. Horren gatik, operazione handi bat egin zioten. Eta azkenean, eritasun horrek ereman du.


Zangoak lurtean bizi zen, bainan gogoa zeruetan hegaldaka, ez segur goiko izarretan, bainan hoik baino gorago den Jainkoa baitan. Bere bizi-lekua zen arras nola-nahizkoa, pobrea. Ez zen atxikia ez jan-edan, ez argi arropatzeari. Gorputz herbaile batean zaukan izpiritu-aberats, dohainez betea. Eta izpirituaren ernetasunak beretzen ninduen, ez baitnintzen ohar-tzen ere haren gorputz eta haren bizilekuari.

Agerkari ttiki bat ateratzen zuen langile eta ikasleentzat. Askotan erraten zuena zen: « Ekar neri langile batzu bi gauza dituztenak: lehenik gizontasuna, bigarrenekorik, beren lana ongi ezagutzen. Heientzat nun-nahitik bilduko da dirua, segurtamena baita diru horrek emanen duela fruitu. »

Erraten zuen ere: Arrantzari pobre bati ez eskaini jateko arraina, bainan kanabera bere amuarekin, berak arantzatzeko arraina... Gizona da lehen eta ez harek duena. Ez zaio duena emendatu behar, bainan bere izaitza.

Erraten zuen ere: « Egun batez etorriko da askatasuna. Orduan bizi beharko da eta ni ari naiz oraianik bizipide horren sortzen. Uste dut nere laneko ikus-moldea zabalduko dela Euskal-herri guzian eta beharbada bilakatuko etsenplu modela bat. Gero, nun-nahiko langintzaren hobetzeko. »

J. E.



Eskuinean Don Jose Maria Arizmendi apaiza, Mondrago-Arrasateko lantegien erakusten hemengo Paul Dutournier eta Piarres Larzabali duela zenbait urte.